

L. L. Bonaparte printzearen lanak

Gaur zortzi, J. Caro Barojak Jorge Borrow-ri buruz eman zuen hizlaldiak in bakutan zebanjelismoa Ekinaren deritzon mugimenduan eratu zuen III. Biblia Astea Donostian. Hizlaldi ederrik izan da bertan eta bai euskaraz eta erdaraz agertuak Biblia eta esku-egribuen erakusketak, Donostiako Aurrezki Kutxa Munitzaleko aretoan. Baina, nere hontan Luis Luciano Bonaparte printzearen euskarazko lanak soilik arituko naiz, lan honek euskararen izan izan garrantzia adieraziz.

Ostegunean, maiatzaren 2an, Karlos González Etxegarai mintzatu zen L.L. Bonaparte eta Biblia euskarara itzultzen egiten zuten lanak. Eta, halako lan bat agertzeko nor hobeto bera baino. Gaur egun Hemeroteca Nacional-eko zuzendari den González Etxegarai jauna urte askoan Bizkaiko Diputazioko bibliotekari izana dugu eta aspalditik L.L. Bonapartearen lanak kezkatuak zetoirena. Bizkaiko Diputazioko Bibliotekari zuden lanak katalogatu eta Euskaltzaindiko Euskeru aldizkarian argitaratu zuen 1962an. Bide beretik jarraituz, Donostian eta Iruian bertako Biblioteketan zuden katalogatutako Bibliotekari eman zion eta lana buruturik Madrid-en argitaratu da 1979an. Baina González Etxegaraiaren lana ezia izan katalogatze soila, baizik xeheki estudiatu Bonaparte printzearen bisitza, bere hizlaldi hortan hain ongi erakutsi ziguen.

L.L. Bonaparte printzeak Europako hizkuntza askotara Bible zatia edo osoak itzultzeari eman zion, hizkuntzalaritaren probetxugarri. Italia aldeko Piamonten ari zen Euskal Herria etorri baino lehen. Aldiz, Euskal Herrian, Antoine d'Abbadiek euskararen alderako zenbait asmo

zerabilzkin. Erromantikoen mugimendua, orduko aski errotua zen gure herrian eta d'Abbadieren ingurua baziren beste gizon batzuk, hauen artean Klaudivo Onaegi Hondarribian maiz zena. Honen emaztea eta printzearen bigarren emaztea aizpaka ziren, eta d'Abbadiek bere adiskide honen bidez zuen L.L. Bonapartegana hemen lan egi zezan, 1856ko apirilaren 25ean gutunez konmitatuz. D'Abbadiek hiru urte lehenago sortu zituen Euskal Jaia erantzun ona izan zuten eta aukerako giroa iduritzen zituzten hemen beharkeko zituen laguntzaileak aurkitzeko. Urte bereko uztailaren 19ean etorri zen Euskal Herria lehen aldiz eta bere asmoen herri Duvoisin eta Intxaustiari azaldu zitkien lehenbizi. Handik, Nafarroako bi alderdiekin harremanak izatu nahirik jo zuen Baijorria eta Etxaz jauregian izan zituen batzarrak.

Horrela abiatu zen L.L. Bonaparte printzearen euskarazko lanetara. Baina izan zituen bere problema ere. Duvoisin kapitainak Hiribarren apezari esan zionez, Bonaparte printzeak katolikoko egiten zuela bere burua, baina Biblia euskaraztean ezertariko oharrik gabekoa nahi zuela, protestanteak heurak baino estuago agertuz. Hau zela ta, Intxauste eta Uriarte eragozpenak jarritzen zituen, hala ere, amor ematera heldu ziren. Dirudiezen, Intxaustepk ez hain gogoz.

Printzearen helburu nagusia euskararen euskalkiak aztertea zen. Bera izan lehen aldiz gure euskaldiki mugatu zituen. Zortzi euskalki nagusi jarrituz, hoin inguru beste mota edo desberdintasunen oharrik eginaz. Zortzi horietatik lau aurkitzen zituen literatura zerbaiz landua zutenak. Gero, hoiengan egingo zuen

Campione bere *La gramática de los cuatro dialectos* deritzana.

Ebanjelioak ziren gehien itzuli zirenak, beste parte askorekin batean, eta Biblia osorik bi bakarrik: Duvoisinek lapurteraz eta Uriarte bizkaitarrak gipuzkeraz. Gipuzkoan, harrigarria badirudi ere, etsuen aurkitu gogozko lankiderik, berakin harremana izan zuten idazle guztek bakoitzak bere keratik omen zituzten eta inor ez errenditzen herriaren mintzarara. Uriartek, beteri aldekoan egin zuen bera lana; baina, esan beharrik ezta, ahalik onduen eginak ere bere hutsak dituela gramatikaz gainera hitzulen ere jator erabiltzean.

Itzulpen asko printzeak berak Londresen argitaratu zituen. Uriartek gipuzkeraz jarritakoaren lehen hiru atalak besterik ez zituen argitaratu, baina Duvoisinek itzultutakoa ososorik. Beraz, hau dugu lehenengo Biblia osoa euskaraz. Zeren, Leizaola 1571an argitaratu zuena Testamentu Berria soilik izan zen.

Itzulpenik gehienak oraindik argitaratu gabe daude. Zorionez, hauen gure Diputazioko artxiboetan daude eta Eronkariko Huadzek eta Baztango Etxeniek eman nituen hizlaldietan azaldu niuzen (ikus *Euskeru*, XXIV, 1979, bere 511-519 eta 561-568 orrialdeetan), euskararen aberketarako edo naiz literaturaren ibertaragari, beharrezkoak iduritzen zaizkigu lan hotek argitaraturik izakitea. Berriki, Pello Salabaruk lan ederra egin digu *Baztango euskalkiaz* (Deustuko Unibertsitateak 1980an argitaratua) deritzan liburuan Bruno Etxeniek Bonaparteren eskariz egindako itzulpenak argitaratu. Jokabide hau premia handikoa dugu eta euskal unibertsitarietatek badute hor lanik aski.

Deban oraintsu euskalkierri bu-

ruko ikastaroan Jaques Allieres jaun- nako zionez, Bonaparte aztergai hartu zuenarik gehien itzulia *Parabola del sembrador* denez, lekuan le- kuko euskalki motak aztertzeko ego- kierna zerizala eta itzulpenetarako testurik hartzekotan Bibliako pasarte- guai behar zuela izan, bestek baino gehiago lagunduko digunez.

Bonaparte bere aginduz bildu- tako lanetarik, argitaratu gabe gel- dinu ziren esku-egribuak, Azkie- zena denboraz mugitu zelako, Euskal Herriko Diputaziok erosi zituzten. Lan inprimatuak eta bere Biblioteka Chicago-ko Newberry Library-k erosi- sia eraman zituen. Lan argitaratu- hotietatik kolektoriok onenak, gure herrian, Azkie Bibliotekari eta Gi- puzkoako Diputazioan daude. Azkie- berari esker batean eta Urkizori- esker bestean. Argitalpen estimagor- riarri dira, tirada edo egitaldi tipik- izaten zituztenez.

Euskalkiak aztertean, oraindik orain ere lan garrantzitsuak dira eta Biblia zabalkunde egina ere ez txi- kia.

Juan SAN MARTIN

Hoy en ocho, con una conferencia de Julio Caro Baroja sobre Jorge Borrow se dio por finalizada la III Semana de la Biblia, bajo el patrocinio de Evangelismo en acción y la Obra Cultural de la Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián.

Entre las conferencias, hubo una muy interesante en relación con la lengua y literatura vascas. La de Carlos González Echegarai sobre el príncipe Bonaparte y sus traducciones vascas de la Biblia. El conferenciante, actualmente director de la Hemeroteca Nacional, fue largos

Folklore astea

Aste honetan ospatuko dira Gupuz- koon bi saio interesgarri: bida Erren- deriako *Musikaste*, Euskal Herrian zehar egiten dan musikaldirik garron- izitsuena, eta bestea Donostian, Musi- kaste Taldekoek eratu duten *Folklore Astea*.

Bigarren antolokizun honek, bere berritasunagatik, merezi du gaurko irazkina.

Folkloristak azken urteotan mes- prezatuak izan dira, folklorea, ba- tuzentzat, txotxolokeria baita. He- rriaren itzean mintzatuaren diran horiek beste gauza premiazkoagoak ditugula diote eta behar bada, mal- tzurkeriaz ez badute jokaten, jaki- nezna agertzen dute. Zer da, bada, herri batentzat herri beraren jakintza baino garrantzitsuagoa?

Folklorea, hain zuzen, hori baizik ezta: herriaren jakintza. 1846ko Abuztuaren 22an Londreseko "The Athenium" aldizkarian hitz berri hau proposatu zuen Ambrosio Merton idazlariak William J. Thoms jaun- ren izenordean zen). Inglesezko hitz hau (folk = herri; lori = ikaskizun) alemanek *Volksde* itzuli zuten eta geroago, euskaldunok, 1880an, *Erri- jakintza* itzuli genuen Villabaso bilbo- tarrak proposatu zuena onaruz. Eta Julien Vinsonen 1883an *Le Folklore du Pays Basque* izenpean argitara eman zuen gaia gero Azkie jaunak, Villabasoaren proposamena onaruz *Euskalerriaren Jakintza* izenarekin erabili zuen.

Munduan zehar folkloerari buruz egiten diren estudioak aztertzeko Ale- jandro Guichot-en *Noticia histórica del Folklore* (Sevilla, 1922) (kusi de- zakegu, Liburu bakan honetan hain- bat xehetasun ematen dizkigu egi- leak, esate baterako, igarotako

gizaldian ospatutako hiru Kongresoek- nak, adibidez, Parisekoa 889), Lon- dresekoa (1891) eta berriz Parisekoa (1900). Euskalerriari dagoskien be- rriak ere badira Guichot-en liburuan baina re Folkloeraren berri jakiteko badugu guk geure bibliografia.

Iztueta izan zen lehendabiz eremu hau hildokatu zuena. Gero, erromani- tismo garaian egin ziren hainbat onog- rafi musikak, ohiurak, ko, daitrak, ipuinak, dantzak etabar biltzen zitu- zenak. Bakarlanak koordinatze eta datoen hilketa plangintza baten sar- tzeoko sortzen da 1884an *El Folklore Vasco-Navarro* Elkarteak, Hemen ere badu Unamunok zer kontraesanik, eta orok onartzen duten Folklore hi- tzaren aurka italiarrak onartutako *Demotika* hiltzarekin argitaratzen du lan bat 1896an.

Manterolak, Donostian, eman zion bultzada izugarriko bat Euskal Folkloreari bai bere *Cancionero Vasco* liburuekin baita ere berak sor- tutako *Euskal-Erria* aldizkariarekin. Antoine d'Abbadie ere aitatu behar dugu, Iparragirrek Gernikako Arbola kantatu zuen urte berean antolatu zuen Urruineko lehen Euskal Jaia 1853an eta. Gure mendearen Oinako- I. Euskal Kongresoan sortu zen Eusko Ikaskuntza eta bere barnean herri ohiuren saila. Azkenaz Baran- diaran jaunak, Gastetxoko Seminari- an irakasle zelarik *Eusko Folklore Elkarteak* sortu zuen 1921an Orotuk hona oraindik bizirik daukagun gizon jakintsu honek orduan sortutako Anuarioaren 28 tomo eman dizkigu.

Gerra ostean Azkiek bere bizi guz- tian bildutako datuak *Euskalerriaren Jakintza* lau tomoetan eman zitki- gun. Julio Caro Barojak ere hainbat esadio eman ditu argitaratu gai haei buruz. Eta aldizkariaren artean, Cua-

demos de *Etnologia y Etnografía de Navarra* ere aitatu behar da.

Asko gehiago dira aitatu beharko genituen folklorista eta argitalpenak, baina aski izango da gaurko dauka- dan inea mugatua baita. Baina gauza

bat argi izan bedi: gure nortasuna az- tertzeke eta finkatzeko beharrezkoak dugula gure herriaren izaera ezagutzea eta horretarako derrigorrezkoak di- rela folkloerari buruzko estudioak. Kontutan har dezagun gure herri za- harrak betidanik del egin ditela iker- tzaile kanpotarrek gure gauzak azter- tzen etorteko. Hoin artean ahaztu ezin duguna da orain ehun urte jaio zen Violet Alfjord. Bere enez antola-

tzen da gaur Donostian hasten dan Folklore Astea.

José Antonio ARANA MARTIJA

Se inicia hoy en San Sebastián una Semana Internacional de Folklore que organiza el Equipo Musikaste de Rentería. Los folkloristas han sido menospreciados en estos últimos años por quienes hablando en nombre del pueblo olvidan que nada hay más importante para un pueblo que conocer su esencia. En definitiva, la palabra *folklore* no significa otra cosa que *subiduría popular*. Quien quisiera estudiar la historia del folklore puede acudir al libro

ESTUDIO DE LA POLITICA ENERGETICA EN EL PAIS VASCO

Para profundizar en la realidad de la política energética en el País Vasco, hay que abandonar prejuicios, desoir opiniones inconsistentes y dejar la planificación y el establecimiento de las medidas necesarias a quienes honda y responsablemente están buscando salidas a la crisis.

El "ESTUDIO DE LA POLITICA ENERGETICA EN EL PAIS VASCO", que fue encargado oportunamente por el Consejo General Vasco, se presenta ahora al público por iniciativa del Gobierno Vasco, el cual, en vez de limitarse a ampliarlo exclu-

samente a sus internos tareas de gestión, ha querido editarlo, como un instrumento que es importante y reflexivo sobre este importante problema.

En el trabajo realizado por ICR (Instituto de Estudios Económicos y Sociales) se pretende examinar



Departamento de Industria, Servicio Central de Publicaciones, GOBIERNO VASCO.